

ARTEA-ARGAZKIA-MODA. William Selden
Irakaslea: William Selden
Tailer saioen kontzeptua eta koordinazioa: YOX kolektiboa
Ekoizlea: Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundia
MID E Studio 011 programaren barruan sartzen da ikastaroa.

Egunak: 2011ko martxoaren 28tik 31ra
Tokia: Arteleku. Donostia.
Ordutegia: goizez eta arratsaldez.
Hartzaileak: ikusizko arteetako eta, batez ere, argazkigintzako profesionalak eta ikasleak.
Partaide kopurua: 12 gehienez.
Prezioa: doan.
Izen-ematea: martxoaren 16ra arte.
Bidali zure datu pertsonalak, curriculuma eta motibazio gutuna info@colectivoyox.com helbidera.

Adierazpen artistikoa eta modaren publizitatea elkar uztartuz argazkigintzan sakontzeko tailerren bigarren edizioa. William Selden britainiar argazkilariaren laguntzarekin, parte-hartzaile hautatuek proiektu pertsonalak landuko dituzte, tailerrean emango dizkieten koordinadak kontuan hartuta: diseinatzaile gonbidatu baten lanak, modeloak, argazki saioa. Hautatutako proiektu hoberekin erakusketa bat egingo da Arteleleku, apirilaren 1ean, MID E Studio 011 (www.mid-e.com) programaren barruan.

WILLIAM SELDEN

William Selden. Hertfordshire (Erresuma Batua). Argazkilaria. Bere ibilbide profesionalean modelo lanetan ibili eta publizitatearen industrian aritu ondoren, arte ederretako ikasketak egin zituen Middlesex-eko Unibertsitatean (Erresuma Batua). Orduz geroztik argazkiak egin ditu Dazed and Confused, ID, Self Service, Pop, Vogue Hommes Japan, Anotherman, V Magazine, Interview, Numéro eta New York Times argitalpenentzat, esate baterako.

Baita publizitate argazkiak ere Uniqlo, Puma, Prada eta Ray Ban markentzat, ahaztu gabe zinemako eta musikako ospetsuei egin dizkien erretratuak. Ospetsu horietako batzuk dira Pulp, Franz Ferdinand, Jude Law, Daniel Craig eta Rihanna.

Bi sari garrantzitsu irabazi ditu Erresuma Batuko arte diseinu eta zuzendaritzako D&AD lehiaketa ospetsuan. Lehena 2004an, Spiritualized musika taldearen "Amazing Grace" albumari egin zion portadarengatik, eta bigarrena 2006an, 'Golden Skins: Ginger Boy' publizitate kartelarengatik.

Tailerraren oinarrizko kontzeptua

Tailer honek adierazpen artistikoa eta moda-publizitatea elkarreraginean jartzen dituzten argazkigintzako praktiketari sakontzen du. Argazkigintzak eta modak, azken hamarkadetakoa ikusizko irudikapenaren ardatz nagusietako bik, gaur egungo gizartearen pertzepzio esperientzian gero eta handiagoa den espazioa hartzen dute. Bakoitzak banaka, eta batez ere biak batera, egunerokotasuna bereganatzen dute norbanakoaren eta munduaren arteko harreman eremu bat eratuz, gehienetan oso baldintzatua egoten dena. Bitarteko grafiko, elektronikoa eta digitalen gorakadak erreferentzia eremu hori zabaldu eta aditzera ematen du.

Argazkigintzaren izaera dualak, bitarteko artistikoa eta erregistrorako eta erreproduktiborako mekanismo gisa, hainbat jardunbide ahalbidetu ditu, helburu artistikotik merkataritza hutsekora doazenak. Elkargune horretan kokatutako argazkilariek artearen, modaren eta argazkigintzaren arteko joan-etorriko zirkuitu hori arakatzen dute, batzutan artetik abiatuta, besteetan publizitatetik, eta askotan tarteko posizio batetik. Zirkuitu horrek eragin nabaria du gaur egungo modaren, publizitatearen eta artearen alorrean, eta agerian gelditzen da hedabide grafikoetan argitaratutako lanen kalitate artistikoa ukaezinean, edo museoetan eta galerietan gero eta gehiago ikus daitekeen moda-argazkigintzan. Era berean, agerian gelditzen da argazkilarien, ikusizko artisten eta artista plastikoen lanean, horiek argazkigintzak duen ahalmena baliatzen baitute kategorizazio estetikoak diluitzen dituzten eta argazkigintzan eta argazkigintzatik zentzua ematea eta irudikatzea zalantzan jartzen duten diskurtsoak elkarreraginean jartzeko.